



## HEZIKETA BEREZIKO LAGUNTZAILEENTZAKO ZIKLO FORMATIBOETARAKO MATRIKULA

Jakin izan duzuenek, publikan lan egiten duten laguntzaileek titulo berriak atera behar dituzte, beraz eta oraindik ezer ofizialki ez dagoen arren, pentsa daiteke ikastoletako heziketa bereziko laguntzaileek ere atera beharko dituztela. Haur Hezkuntza eta Goi mailako Hezkidetzako goi mailako ziklo formatiboetarako matrikulak, horrela geratzen dira:

### Lehenago ziklo formatibo batean matrikulaturik egon ez direnentzat

Matrikula epea, ziur aski, urtarrilean irekiko da eta baldintza hauek bete behar dira:

- Goi mailako zikloetarako 20 urte izatea
- Bi baldintza hauetariko bat behintzat betetzea:
  - 1.- Dagokion zikloarekin loturiko gutxieneko 2 urteko lan eskarmentua.
  - 2.- Lehenago sektorearekin erlazionaturiko ikasketak eginda duenaren ziurtagiria.

## Iaz ziklo formatiboetan "libre" matrikulaturik egondakoentzat

Egoera honetan daudenak, aurreko ikasturteetako baldintzetan egin beharko lukete matrikula, hau da, azaroaren bigarren hamabostaldian.

## HEZKUNTZA SISTEMEN ELKARTRUKEA

Etorkinen kolektiboen eta Euskal hezkuntza eragileen arteko topaketak, azaroaren 29an Gasteizko Europa jauregian ospatuko dira. Antolatzailea, Josemi Zumalabe Fundazioa da.

Izena emateko epea azaroaren 25ean bukatzen da. Interesa dutenak dei ezazue honako telefonora: 943275561.

## LAB SINDIKATUAREN WEB ORRIA

LAB sindikatuak badu bere WEB orria.

Orain poliki-poliki sektore eta arlo bakoitzak dagokionarekin edukiz betetzen hasiko da.

Zuentzako baliogarria izango delakoan gaude.

Bere helbidea honako hau da:

[www.labsindikatua.org](http://www.labsindikatua.org)

## INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR BALDIN BADUZU, DEITU LASAI

**IKASTOLAK**



2003  
AZAROA

**Informatzen**

**LAB**  
**Irakaskuntza**

**Bilbo.**Rekalde . 62-behea.KP:48010. Tlf.944706926.Post Elek.irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org  
**Donostia.** San Bladi 1 behea. KP:20013 Tlf.943458562.Post. Elek. irakgipuzkoa@labsindikatu.org  
**Gasteiz.**Bueno Monreal, 10-behea. KP: 01001 Tlf. 945258404.Post. Elek. irakaraba@labsindikatu.org  
**Iruñea.**Mercaderes, 25-1. KP: Tlf. 948210422. Post. Elek. iraknafarroa@labsindikatu.org  
**Baiona.**Marengo karrika,13. Tlf. 05595020. Post. Elek. baiona@labsindikatu.org

[www.labsindikatu.org](http://www.labsindikatu.org)